

## 2025/2026 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 3tik 14ra (biak barne) izango dela 2025-2026 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz edo 943361216 telefonora deituz.



Bestalde, **bihar**, larunbata, **ATE IREKIAK** izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Bi saio eskainiko dira: 10:00etan eta 11:30etan. Agerialde eraikin parean (Alperroburu, 5. zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezket).

## Ikastolak murrizketa eta neurrigabekeriak pairatzen ditugu!

Azken urteetan, Hezkuntza Sailak matrikulazio prozesuan ezarritako aldaketak medio, hainbat erronkari aurre egin behar izan diegu Ikastolok. 2023ko urtarrilean Hezkuntza Sailak, lantzen ari zen hezkuntza legearen testuinguruan, 2023-2024 ikasturterako ikasleak matrikulatu eta onartzeko agindua argitaratu zuen. Agindu horretan, aldaketak txertatu zituen aurreko aginduekin alderatuta.



Berrikuntza hauek, ustez ikasle zaugarrien

banaketa orekatua egitea eta eskaintza eskaerara egokitzea zuten helburu. Horretarako, lehen aldiz zaugarritasun indizearen nondik norakoak eta baremaziorako irizpide berriak ezarri zituen.

Ordu ezker, matrikulazio prozesuak gorabeheratsuak eta gatazkatsuak izan dira, oro har, hezkuntza-komunitatean eta, nola ez, gure Ikastoletan. Tartean, Salvatore Mitxelena Ikastolan. [Informazio gehiagorako...](#)

## DBH4-ko zozketaren zenbaki saritua

DBH4. mailako ikasleek ikasbidaiako dirua lortzeko saldu zituzten errifen **zenbaki saritua 3300** izan da. Sariduna agertu da dagoeneko. Mila esker dirua lortzen lagundu zenuten guztioi!



## Jangela-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek izango duten menua honakoa da:

### ◆ 3-16 urtekoen menuak

[Otsaileko menua](#)

[Otsaileko alergia eta intolerantzien menua bereziak](#)

### ◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alergia eta intolerantzia menuak](#)



Gogoratu, izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko dela gutxienez bezperan 13:00 aurretik, **baita egun solteakako kasuetan ere**. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko. Hala egiten ez bada, eskaturiko menua kobratu egingo da.

# HAUR HEZKUNTZA

## 2025/2026 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 3tik 14ra (biak barne) izango dela 2025-2026 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz edo 943361216 telefonora deituz.

Bestalde, **bihar**, larunbata, **ATE IREKIAK** izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Bi saio eskainiko dira: 10:00etan eta 11:30etan. Agerialde eraikin parean (Alperroburu, 5. zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezket).



Bestetik, jakinarazten da, 2023, 2024 eta 2025 urtean jaio direnen eta jaioko diren haurren matrikulazioa aurrerago egingo dela ohi bezala, Haur Eskolan.

## Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu, beraz, ahal dezuenean makila ekartzea eskatuko dizuegu entseguekin hasteko.

Egunean bertan, arratsaldean, haurrek baserritarrez jantzita etorri behar dute. Jangelako haurrek guk jantziko ditugu. Haur kopurua handia dela ikusirik, eta berokiekin joango garela aurrikusirik, eskertuko genizueke azpitik arropa hauekin jantzita etortzea guri lana errazteko:

Neskak: mailak eta jertse bat

Mutilak: galtza bakero edo galtza urdinak.

Gainetik, gona, berokia eta lepoan zapia jantziko dizkiegu eta nahikoa izango da (alegia ez dela gerritik gorako blusa, ator edo kaikurik behar izango).



Arratsaldean ateri egingo balu, herriko frontoian abestuko genuke LH-koekin batera 16:00ak aldera (ordua zehaztuko dugu).

**Gogoratu haurrak frontoian bertan jaso behar dituzuela.** Euriarekin, ikastolako frontoian abestuko genuke.

# LEHEN HEZKUNTZA

## Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, asteartea, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu. Arratsaldean, haurrak baseritarrez jantzita etorri behar dute. Datorren astean makilak ekartzen hasi behar dute.



## III Xake tailerra eta topaketa

1. GAUR, ostirala, 17:30etik 19:00etara, **III XAKE TAILERRA** Sutegi Liburutegian. Saio hau 6-9 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago (LH 1-LH 4), eta bertan xakeari buruzko oinarritzko ezagutzak azalduko dira; ondoren, partaideek torneo txiki bat jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estevez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen-ematea: Sutegi Udal Liburutegian.



Usurbilgo Udala

2. Urtarrilaren 31n, 17:30etatik 19:00etara, **III XAKE TOPAKETA** Sutegi Liburutegian. Saioa 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzendua dago (LH5etik gora), eta bertan parte hartzeko, xakean jolasten jakin behar da. Partaide guztiek elkarren aurka jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estévez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen ematea: Sutegi Liburutegian.

## III Xake topaketa

Urtarrilaren 31n, 17:30etik 19:00etara, III XAKE TOPAKETA Sutegi Liburutegian. Saioa 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzenduta dago (LH5etik gora), eta bertan parte hartzeko, xakean jolasten jakin behar da. Partaide guztiek elkarren aurka jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estévez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.



Usurbilgo Udala